



4. Diru-iturriak

Gure diru-iturri nagusiak bi izango dira. Batetik, aurretik aipaturiko diru-laguntzak izango ditugu. Udalen eta instituzio publikoen eskutik jasoko ditugunez, eta gure zerbitzuak etengabeko onura egingo dionez, diru-laguntzak finkoak eta hilerokoak izango dira.

Bestalde, gure makinek plastikoak jasotzen dituzte, eta plastiko hauek birziklatu edo berrerabiliko dituen enpresa batekin egingo dugu akordioa. Enpresa honek, plastikoa birziklatuz produktu berriak sortzen ditu, beraz, gu enpresa honen hornitzaileak izango gara, eta horregatik diru-iturri handi bat izango da. Era honetan, guk etekina aterako dugu, enpresak berak etekina aterako du eta orokorrean, bai herriarentzat bai naturarentzat onuragarria izango da.

Honez gain, hasieran, bazkide bakoitzak 2.000€ jarriko ditugu kapital gisara, era honetara, diru-laguntzez gain hasierako oinarri bat izatea lortuko dugu.